PLENTZIA 2008:

RALLY-A

Unai Martinez – Licensed under CC by-sa 3.0



Beharrezko materiala:

- Plentziako Udalaren web gunean (www.plentzia.net) edo turismo bulegoan aurkitu dezakegun herriko planoa. 1 eta 2 eranskinetan bi modelo aurkitu ditzakegu. Talde bakoitzeko bat beharko dugu.

- Toki bakoitzeko pista bat, bidea jarraitzeko lagungarri izango dutena. Talde kopuru adina kopia izan beharko ditugu.

- Azkeneko froga burutzeko kriptograma eta bi taulak. 3 eta 4 eranskinetan aurkitu ditzakegu. Talde bakoitzeko bat beharko dugu.

- Talde bakoitzarentzako arkatz eta borragoma bat.

Rally-ko arauak:

- Momentuoro taldeak batera joan behar du eta begirale bat egon behar da honekin. Errepideak eta toki arriskutsuak ezingo dira monitoreak agindu arte gurutzatu. Arau hau ez betetzeak talde osoaren kaleratzea suposatuko du.

- Ezin dira beste taldeen pistak hartu ezta ezkutatu. Bakoitzak bereak izango ditu.

Jokatzeko argibideak:

- Hasi baino lehen, monitoreek pistak dagokien tokian ezkutatuko dituzte, baina ez talde guztienak berean. Udalekukoa ez den norbaiten parte hartzea beharrezkoa izanez gero, honekin hitz egingo dute lehenago eta arazoren bat egotekotan pistaren planteamendua aldatuko da.

- Talde bakoitzari lehenengo pista emango zaio eta honetan dagoena ulertu ondoren, hurrengoaren bila joango dira. Talde guztiak aldi berean hasiko dira.

- Begiralearekin batera ibilbidea burutuko dute, azkeneko pistak etxera bidali arte.

- Etxera heltzen diren heinean, posizioak kontutan hartuko ditugu. Lehenak 0 segundoko atzerapena izango du bukaerako frogan, bigarrenak 15 segundokoa, hirugarrenak 30-ekoa...

- Heldutako ordenari jarraituz eta adierazitako denbora tarteak utzita, talde bakoitzari kriptograma eta hau argitzeko taulak emango dizkiogu.

- Kriptogramak ezkutatzen duena esaten digun lehenengo taldeak jokua irabaziko du.

- Hamar minutu iragan ostean ez badu inork erantzuna aurkitu azkeneko pista emango diegu: koloreak zenbaki, zenbakiak hitz, elkarrekin nahastuta aukera anitz.

Unai Martinez – Licensed under CC by-sa 3.0

Pistak eskutatzeko tokiak:

- Aterpe alboan dagoen frontoia.
  Falta eta Pasa zenbakien artean. Lurrean, bola bat eginda eta zeloarekin pegatuta.

- Udaletxea.
  Atean dauden zutebeetan zeloz pegatuta, edo hormatxoan.

- Ermita del Santo Cristo del Amparo.
  Sarrera inguruan zeloarekin oratuta.

- Turismo bulegoa.
  Bertako langileei emango diegu ahal izatekotan. Bestela, ate inguruan utziko ditugu.

- Postetxea.
  Postetxea eta kaiaren artean dauden zuhaitzetan pegatuta, bankuen azpian... Turismo bulegoa itxita badago eta postetxea zabalik, hauei galdetuko diegu ea pista gordeko diguten.

- Aterpetxea.
  Ez dugu pista eskutatu behar. Hemen begirale bat egongo da taldeak heltzeko zain azkeneko proba burutzeko. Ordena apuntatuko du honek.

Lau talde egonda, bakoitzaren ibilbidea:

- 1. taldea: Ermita – Udaletxea – Postetxea – Turismo bulegoa – Frontoia – Aterpetxea.
- 2. taldea: Frontoia – Ermita – Turismo bulegoa – Udaletxea – Postetxea – Aterpetxea.
- 3. taldea: Postetxea – Turismo bulegoa – Udaletxea – Frontoia – Ermita – Aterpetxea.
- 4. taldea: Udaletxea – Tursimo bulegoa – Ermita – Frontoia – Postetxea – Aterpetxea.

Taldeentzako gomendioak:

- Korrika hasi baino lehen zeiurtatu mezua ondo ulertu duzuela.
- Herriko planoa ondo begiratu, toki bera leku baten baino gehiagotan egon baitaiteke.
- Ez izan jendeari argibideak eskatzeko beldurrik izan. Beti mesedez eta lasaitasunez eskatu.

Pistak:

- Udaletxera joateko: Sauronen eraztunak Erdi Lurra menderatzen du eta eraikin honetatik Plentzia osoa dago zuzenduta.

- Frontoira joateko: Joan zaitez korrika hurrengo pisataren bila. Kontuz izan, 4-a gainditu beharko baituzu, baina 7-tik haratago ez duzu lortuko.

- Ermitara joateko: Orain dela 2000 urte inguru pertsona batek historia aldatu zuen, baina ez zaitez bere bulego nagusira joan, baizik eta sukurtsalera.

Unai Martinez – Licensed under CC by-sa 3.0

- Turismo bulegora joateko: Hurrengo pista eskuratzeko informazioa nahi izatekotan, egizu turisten antzera eta joan herrian zehar gidatu zaitzaketen tokira.

- Postetxera joateko: Bidaliozu e-maila lagun bati, baina ez zure erara, baizik eta zure aititak egingo zukeen bezala, zure adina zuenean.

- Aterpetxera joateko: Deszifratzea inoiz ez da erraza izan, baina geroz eta lehenago bueltatu, orduan eta denbora gehiago izango duzu kideei irabazteko.

Kriptogramaren soluzioa:

- Lehenik eta behin koloreak zenbaki/letra bihurtu behar dira, eskumako taula erabilita. Ondoren, aurrekoak binaka hartuta eta ezkerreko taularen bidez, letra bakarra lortuko dugu bikote bakoitzeko. Honek erantzuna emango digu, kasu honetan “Plentzia”.


Berdea – Beltza	5 – 0	P
Horia – Urdin argia	4 – C	L
Horia – Berdea	4 – 5	E
Horia – Granatea	4 – E	N
Berdea – Horia	5 – 4	T
Berdea – Morea	5 – A	Z
Horia – Zuria	4 – 9	I
Horia – Marroia	4 – 1	A

Unai Martinez – Licensed under CC by-sa 3.0

1. Eranskina

KALE-ZERRENDA
CALLEJERO

ANDRA MARI BIDEA	D3
ANTOLIN DEUNA PLAZATXOA	D3
ARBIDEA ALDAPA	D2
AREATZA KALEA	C2-3
ARRANTZALE KALEA	C3
ARRAUN KALEA	C2
ARTEKALE	D2
ASTILLERO ENPARANTZA	D1
AZURTEGIONDO PLAZATXOA	D2
BARRENKALE	D2
ELEIZ ENPARANTZA	D2
ERRIBERA KALEA	D2
FRONTOI KALEA	D1
GAMINIZ KALEA	D3
GELTOKI KALEA	F2
GOIENKALE	D2
HIGINIO BASTERRA KALEA	F2
IBILTOKIA	C2
ITURGITXI KALEA	C3
JENARO URRUTIA ALDAPA	F1
KALEBARRIA	D2
KASTILLAO ALDAPA	E3
KIROLETA	D1
KRISTO ENPARANTZA	D2
KRISTO ESKILARA	D2
LABASTURE KALEA	C-D2
MADALEN ALDAPA	D2
MARIÑEL KALEA	D1
MENTXAKA ZUGASTIA	D2
MUNGIA BIDEA	D2
ONDARRETA	A-B3
PALANKETE ESKILARA	C3
PLAZATXOA	E2
PORTALETA KALEA	D2
PORTU KALEA	C3
SAN JOSE KALEA	C3
TXIPIO BIDEA	F2
TXURRUA KALEA	B3
UDALETXE ALDAPA	D2
ZUGAITZ BIDEA	D-E 2






PLENTZIA
PLENTZIA

1. Estación de Metro Bilbao
2. Casa Lekunberri
3. Pasarela peatonal
4. Kanposena de Butrón
5. Palaziobarri
6. Kukulluena
7. Markesena
8. Garaiena-Inglesena, Kotoenabarria y Sagena
9. Etxebarrieta
10. Hospital y escuela
11. Ormaetxea
12. Ermita del Santo Cristo del Amparo
13. Opatua
14. Uriartenatxikia
15. Peparrandoena, Aurtenetxena, Lekusaiena
16. Txantxarrena, Josturena, Zuatzoena, Markosena
17. Olasobarria
18. Muñekasena
19. Torreón
20. Muxikaena
21. Atxonenabarria
22. Palacio Nuevo
23. Villa Saturnina
24. Iglesia de Santa María Magdalena
25. Gerekena
26. Torrebarri
27. Portal de Santiago y Arrartena (Batzoki)
28. Benta Barri
29. Villa Catalina
30. Maruriena
31. Artatzaena
32. Olagibelena
33. Ayuntamiento
34. Hotel Palas
35. Casa Labasture
36. Chalés Portuondo y Txurrualde
37. Casa Basáñez
38. Sanatorio Marítimo de Plentzia

PLENTZIA 2008



PLENTZIA 2008

A	41
B	42
C	43
D	44
E	45
F	46
G	47
H	48
I	49
J	4A
K	4B
L	4C
M	4D
N	4E
O	4F
P	50
Q	51
R	52
S	53
T	54
U	55
V	56
W	57
X	58
Y	59
Z	5A

